

Eliza, herri-kultura eta politika. Besta-Berri Ipar Euskal Herrian

Xabier Itzaina
Zientzia politikoetako doktoradutzan ikasle

Ipar Euskal herriko herri-erlijioaren eta identitate etnikoaren eraikuntza sozialaren arteko erlazioak aztertzea da artikulu honen xedea. Erakutsi nahi da erlijio-/gizarte-ohitura bat, hots Besta-Berri, erraz bihur daitekeela politikoa ideologi-polarizazioa nagusi den testuinguru batean, hain zuzen Frantziako hirugarren errepublikan, Eliza eta Estatuaren arteko gatazka bizia zegoenean. Ospakizun honen bilakaerari buruzko egungo eztabaidak ere Eliza katolikoaren eta lekuko identitateen arteko erlazioan arazo anitz azaleratzen duela erakusten da orobat. Mendebaldeko herrialdeetan sekularitze-/laikotze-prozesuek identitate etnikoaren bilakabidean duten eragina azertu nahi duen hausnarketa zabalago batean kokatu behar da lan txiki hau.

This paper aims to analyse links existing between “popular religion” and social construction of ethnic identity in the French Basque case. It tries to show how a religious/civil custom, the Corpus celebration, can easily become a political issue in a context of ideological polarization, as was the conflict between Church and State in the third French republic. It also shows that actual debates over the becoming of this celebration still ask the problematic of relations between the catholic church and local identities, as multiples as they are. This short work has to be replaced in a more general context of a reflexion about the incidence of secularization/laïcisation processes on development of ethnic identity in several western countries.

Besta-Berri edo Corpus deitu besta hemen adibide bezala baliatua da erlijioa eta kultura herrikoiairen arteko harremanen doi bat aztertzeko. Hemen erakutsi nahi dena da "ohiturak" deitzen direnak kontzeptu eraikiak direla, errepresentazio sozialak beste-rik ez direla, beste edozein ekintza bezala. "Ohiturek" karga sinboliko azkar bat baderamate berekin, eta ideologiaren arteko gatazka garaian, alderdikariak bihurtzen ahal dira. Bata edo bestearen jokamoldearen arabera, "ohitura" bat gizarte baten atzeratasunaren seinale bilakatzen ahal da, edo alderantziz, gizarte horren biziaren seinale. Batzuentzat "ohiturek" gizartea herri bilakarazten dute; besteentzat ohituren begiratzeak gizartea indiano-erreserba batean mugatzen du...

0. Aurre-definizio zenbait

Erljioa «gauza sakratu batzuei doazkien sinesmen- eta jokamolde-andana solidario bat (...)» (Durkheim 1894: 108) bezala definitzen zuen hastapeneko soziologia frantsesak¹. Sinesmenak «iritziaren estatu batzuk dira, errepresentazio batzuk» (ibid. 92), sakratua eta profanoaren arteko mozturaren gainean oinarrituak. Erljioaren jokamoldeak erritualak dira, hauek «ekintza-modelo determinatu» (ibid.) bezala kontsideratzen ahal direlarik. Erritual eta sinesmen berak partekatzen dituzten jendeen biltzarrak Eliza bat osatzen du. Antropologiaren arabera, erlijioaren gakoa sinboloen erabiltzearen baitan dago. C. Geertz-ek horrela definitzen du erlijioa: «(1) sinbolo-sistema bat, (2) gizonaren baitan motibazio eta pentsamolde iraunkorrak sortzen dituena (3) biziari buruz proposamen orokor batzuk eginez, (4) eta

proposamen horiei egiaren itxura emanenez (...)» (Geertz 1972: 23). Ikusmolde horren arabera, erlijioa mundua sistema sinboliko batean sartzeko molde egokiena eta "teknikoki" hoberena bezala agertzen da.

Ezin ukatuzkoa da bestalde nortasun kolektiboaren sendimentua sistema sinboliko baten gainean eraikia dela, sinesmen eta erritual batzuen inguruan. *Tresna* bat bilakatu den kultura bat da nortasun kolektiboa. Irudimen horrek gizartean mobilizazioa sortuko du «batzuen estrategia politikoei populazioaren sendimentuen laguntza lortzen badute» (Constant-Martin 1992: 738). Nortasun kolektiboaren sortzeko, gizarteak bere burua behar du komunitate bezala kausitu, eta horrentzat behar da jendearen irudimena landu, sinboloek eskertu. Horrela dira sortu sistema sinboliko indartsu batzuk, frankotan estatu "appareil" bati legitimazioa ekartzen ziotenak. Luzez bata bestearen parean emanak izan dira Errusiako estatuaren kultura eta Estatu Batuetako *civil religion* delakoa. Frantzia, errepublikak zinezko erlijio paralelo bat sortu du, bere sinesmen eta errituarekin, iraultzarekin hasi eta gerlekin segituz, M. Agulhonek ederki erakutsi duen bezala. Beraz, estatu finkoek ere sinboloen beharra baldin badute beren buruaren onarrazteko, zer erran estatu baten ondotik ari diren herri edo nazioentzat? Horientzat sinboloak bizitzeko ezinezko baldintzak dira. Estaturik gabeko herrietako militanteen estrategiaren oinarria da sinestaztea beren borroka herriarena dela, eta herriaren laguntzaren jasotzeko ez dute erakundetik, zaila zaie beraz bakoitzari abantaila material batzuen emaita, estatu batek

1. Gogoan atxiki hau parte handi batentzat Eliza katolikoaren aurka egin zela, gizarte-zientzien unibertsitate laiko bat eraikiz lehen aldikotz Parisen, Durkheim-en inguruan.

egingo lukeen bezala. Nortasun kolektiboak behar du beraz sinboloekin jokatzea, eta tokiko kulturako elementu batzuk tresna bihurtu. Elementu horiek izaiten ahal dira hizkuntza, muga geografikoak, arraza edo erlijioa. Honenbeste elementuk "stock" kultural bat osatuko dute eta «nazioaren definizio primordialista» (Morin, Coulon 1977) bat eraikiko. Gero afinatzen da nazioaren definizio hori, ikusiz mugimendu nazionalista edo abertzale bat indartzeko dela eta bere interes propioak badauzkela erakunde bezala. Edozein erakundetan bezala, aktore batzuek indar politikoari buruz eramanen dituzte estrategia pertsonal batzuk, sinbologia eta sinesmenen gibelean gordez. Nortasun kolektiboa tresna bihurtzen da berriz ere, honenbertze jokamoldearen zerbitzurako jarria.

Nortasun kolektibo baten definizio-prozesu bat, ikusi dugunez, herriaren sinesmenaren gainean pausatzen da, eta "kultura herrikoa" delakoa dauka lehen oinarritzat (sentimentuaren lehen sustraiez ari gara hemen). Kontzeptu hau ere era desberdin batzuek itzul daiteke. F. A. Isambert, erlijioaren soziologo frantsesaren arabera, kultura herrikoiak bi zentzu arrunt desberdin ukaiten ahal ditu: izaiten ahal da ber denboran «gizarte-klase subalternoen izendatzeko molde bat, edo bestalde gizartearen antolakuntza espazialean periferian diren aktore batzuen memoria kolektiboa, hizkuntza eta erlijio berezitasun batzuek frankotan laguntzen dutena» (Isambert 1982: 27). Kultura herrikoia definitzeko momentuan, eta gauza bera pasatuko da "erlijio herrikoa" aipatzerakoan, ohar-

tzen gara beraz jadanik ideologiak jokoan direla.

0.1. Problematika

Erljioa eta nortasun kolektiboa bata bestearen parean emaiten diren prozesuak dira, sinboloen inguruan eginak diren estrategia eta teknika berak aurkitzen direlaketz. Biak gainerrat kosmologiak dira, hau da, mundu guztia integratzen eta esplikatzen saiatzen diren pentsamolde batzuk. Problematika beraz aise ateratzen da aurredefinizio hauetarik: zer gertatzen da bi kontzeptu horiek elkar kurutzatzen bada? Eta guk hemen laburki aztertuko dugun kasuan, zer gertatzen da erlijio *tokikoa* bilakatzen bada, *erlijio herrikoa* deitzen dena? Zer harreman ditu orduan nortasun kolektiboaren oinarri den *kultura herrikoa*-rekin?

Galde horri erantzun-hasiera bat emanen diogu Besta-Berri-ren adibidearen bidez. Bi arrazoigatik hautatu dugu gai hori: alde batetik, besta hori izugarri aberatsa delakotz sinbologiaren aldetik, eta hori bai Europa guztian, bai eta beste toki batzuetan ere²; eta bestetik guti estudiatu izan delakotz Iparraldean, beste ohitura batzuen parean: ihauteriek adibidez literatura ugari sortu dute Euskal Herrian, beharbada berekin daramaten uesteko sinbologiari esker. Betiere, Besta-Berri guti miatua izan da, berrikitan Belokeko Aita Etxehandik lan garrantzitsu bat egin arte gai horri buruz (Etxehandi 1989). Guk hemen aztertuko ditugu besta horrek berekin dakartzan sinboloak, eta oroz gainetik haien baliabide

2. Adibideak balitezke ehunka. Hargatik, Perun ohargarri da Corpus garaian indiarrek egiten dutela beila, horma sakratuen biltzeko 3.000 metrorik goitiko kaskoetan. Erdi girixtino, erdi Inca, sinesmen eta jokamolde-sistema hori gaur egun indianoen elkarretartzeko era bilakatu da, eta beren nortasun etnikoaren fisikoki aurkezteko parada bat.

eta interpretazio desberdinak historia eta gizartean zehar.

Besta-Berri parabola politiko bezala kontsideratuko da hemen, gizarteak bere buruaren antzezteko aurkitu duen molde bat. Lehen puntu batean bestaren mamiari so eginen diogu, mikro-antropologia bat eginez, sinboloen aberastasuna miatuz (I). Bigarren puntu batean, begiratuko dugu besta hori nola iragaiten den Ipar Euskal Herrian (II), ondotik ikusteko xehekiago ideologiek nola baliatu duten ohitura-krisia testuinguru batean, hau da Eliza eta estatuaren arteko gatazka XIX. mendearen bururatzeko Frantzian (III).

1. Europan zehar: Besta-Berri herri osoak ekoiztu erritual bezala

Udaren hastapenean gertatzen den besta honek beti izan du errannahi franko: berez, gizartearen alderdi guztiek erakusten duten besta bat da. Besta horrek dakartzan sinboloek zernahi zentzu-unibertso desberdinetara igortzen gaituzte. Alde bat da Elizarena, baina ez da bakarra inola ere. Beste unibertso bat izaiten ahal da balore militarrek osatzen dutena, hirugarren bat naturarena, laugarren bat dantzarena, honek ere idazle zenbaitentzat bere errannahi berezia duelakotz... Ikuspuntu anitz izaiten ahal dira gertae- ra beraren inguruan, eta beharrezkoa da, zentzu horien guztien atzemaiteko, antropologoen metodoa erabiltzea sinboloen azterketan.

Lan horretarako, Victor Turner batek Afrikako erlijio batzuentzat baliatzen duen ikusmoldea baliagarri izaiten ahal zaigu. Hiru aztarna edo dimentsio ikusten ditu Turnerrek sinboloen estudioan, edozein erreferentzia sistematan. Lehena exegesia deitzen du: hau da «to-

kikoek berek sinboloari emaiten dizkio- ten azalpenen korpusa, informanteak beren estatutu sozialaren arabera sailkatuz» (Turner 1971: 76). Lehen urrats honek soziologiaren iturrietarat igortzen gaitu berriz, Weberren metodo «konprentsiboa» aplikatuz (aktoreek beraiek ekintzari emaiten dioten zentzuaren biltzea). Bigarren urratsak behar du «operatorioa» izan, erran nahi baita hemen aztertuko dela ea nola baliatua izan den sinboloa, noren eta zein interresen kontu: «hemen, ez dugu jendeak sinboloaz zer dioen kontsideratzen, baina bai sinboloa nola baliatzen duten. Bestalde, ez dugu sinbolo xoil- a begiratzen, baina bai hura ekoizten eta hari hurbiltzen zaion talde sozialaren egitura (...)» (ibid.). Azkenik, «posizio- nala» deitu dimentsioan, sinboloaren zentzua beste sistema sinboliko orokor batzuei lotzen saiatu behar da: «sin- bloa elementu bat besterik ez da, eta bere zentzua egestura orokorrean duen lekuak du definitzen» (ibid.).

1.a. Berant sortu den erritual bat

Girixtinoen egutegiaren arabera, bes- ta hori bi zikloen artean da: Kristorena, Eguberritik mendekoste artino doana, eta udakoa, patroï saindu eta Andre- den Amarena. Bi ziklo horien artean da *Corpus Christi*-ren besta mobila. His- torikoki, besta horren sortzea ezaguna da: jadanik V. mendean, *Natalis Cali- cis* deitu besta bat iragaiten zen Mar- txoaren 24an, baina nola egun hori Pasioan erortzen baitzen usu, Urbano IV.a aita sainduak 1264 urtean aldatu egin zuen eguna. Besta lehendabizi Belgikan hedatu zen, Liègeko dioze- sian Sakramentu sainduari jadanik Juliana beatak (1193-1258) egin xede bat segituz. Besta girixtinotza guztiari ofizialki hedatua da 1311n Klemente V.ak Vieneko kontzilioan hartu eraba- kiari esker. 1306 eta 1325 artean Bel-

gikatik Frantzia, Ingalaterra, Alemania, Italia eta Espainiarat hedatzen da.

1.b. Erljioa, baina herrikoia

Elizak besta horri emaiten dion zentzua ez da hain erraz definitzea, hemen jadanik, teoria eta praktikak ez dutelakotz beti gauza bera erraiten. Beti bi jarreraren artean egon da Eliza besta horri buruz, eta besta guztien parean, funtsean:

Gauza bat segurua da: Elizak bestaren ospatzeko era goxo eta herrikoia bilatu duela. Bestaren erroetan sartzen dituen sermoi eta mintzaldiek justifikatzen dituzten elementu batzuk: baina bulta baten buruan, azalpen horiek ez dituzte tokiko jendearen nahiak betetzen, eta orduan sortzen dira “historiko-realista” deitzen ahal genituzkeen azalpenak. Beste elementu batzuek ez dute interpretazio edo “arrainterpretazio” beharrik. Besta osatzen dute, karriketan, besta-izpiritu batek ditu definitzen, besterik gabe. Hori ez da Elizgizonen protestarik gabe egiten, horiek Corpus-eko soberakina, dantzak eta abar, salatzen dituztelarik (...). (Caro Baroja 1984: 63).

Bi helburu izan zituen Elizak besta hori sortzearekin: berdenboran nahi izan zuen zerbait herrikoi eta pedagogikoa sortu. Jainkoaren presentzia irudiek fisikoki erakutsiko dute, eta joko erritualak haren ekintzak goretsiko. Erakaspen-nahi bat badarama berekin besta horrek, eta hori Europa guztian, Bibliaren pasaia antzeztuz. Erdi Arotik

heldu zaigu zuzenean irakaspen tekniko hori, Eliza katolikoak ederki puntuan emana zuena. Prozesioan, antzerki ofizial bat da karrikarat jaisten, mende-baldeko Europa guztian aurkitzen den modelo bat segituz. Nahiz eta modelo hau Espainia, Frantzia eta Flandes-etako adibidekin egina den gehienbat, Julio Caro Barojak emaiten duenak Europako anitz tokirentzat balio du:

Hiriko Corpus besta handi batek elementu hauek dauzka :

1. Karrikak berdurez apainduak dira: paretak erramuz estaliak, iratze-berdurak lurlean, eta abar.

2. Korporazio-dantzak atzemaiten dira, udaberriko eta oroz gainetik udako patroiairen bestan aurkitzen direnen parekoak: makil-dantza, etab.

3. Zigante, buruhandi eta ñaño bezalako pertsonaia batzuk.

4. Kabale-errepresentazio batzuk (mando, zezen, arrano) edo monstrosuak (*tarasque*³ bezala), erranahi sinboliko garrantzitsua daukatenak.

5. “Caballitos” batzuk, edo zaldizko armatuak.

6. Beste pertsonaia batzuk, sinbolismo aunitz edo gutirekin, irrigarriak ala ez: zorro jasotzaile, maska, etab. (Caro Baroja 1984: 53).

Erdi Aroko (nahiz eta horrelako modelo baten elementu anitz gu arte etorri diren) modelo horrek untsa ulertarazten digu zein heinetaraino Besta-Berri erlijio herrikoia adibide perfektu bezala kontsideratzen ahal den. Zaila da besta horren aztertzean bereiztea zer den sakratua eta zer den profanoa, zer

3. *Tarasque* deitzen zen Aix-en-Provence hirian Besta-Berriz ateratzen zen herensugea. Frantziako besta-berririk famatuena dugu beharbada hau. 1452an Anjouko René erregeak sortu zeremonia horretan, Proventzako literatura eta “courtisans” delakoek erlijiozko gaiek baino garrantzia gehiago ukanen dute, konfliktu ugari sortuz. XIX. mendean, pertsonaia ospetsu batzuen ohoretan emana izan zen (1807an Pauline Bonaparterentzat adibidez), baina Angoulêmeko dukesak kontsideratu zuen besta sobera profano bilakatua zela eta ez zen egin. Berriz emana izan zen 1844 eta 1851an, kabalkada baten formarekin, elementu sakratu eta profanoak nahasiz... Aix-eko Besta-Berriak hegoaldetik ukan zituen influentzia anitz, eta horietarik bat oroz gainetik, Bartzelonako Corpusarena (ikus Bessaignet 1982: 46).

den erlijioaren kontukoa, eta zer den “gizarte zibilak” berak ekoiztu partea:

Besta eta liturgia bata bestearen parean jartze horrek erakusten du bestaren ereduaren aniztasuna, eta bi mugarriren arteko tentsioa. Alde batetik, indiferentzia, inartikulazioa; bestetik, erritualaren ordena, bakoitzaren lekua- ren banatze finkoa, sinboloen kodifika- zioa. Muga batean edo bestean, besta- tik ateratzen gara, alde batetik emozio kolektiko informal batentzat, eta beste- tik, zeremonial hutsean sartzeko (...)
(Isambert 1982: 146-147).

1.c. Panem et circenses

Corpus egunean gizarteak bere burua antzezten du, *civitas-a* taulen gainerat igaiten da. Herria osatzen duten gorputz desberdinak agertzen dira, bakoitza bere berezitasunekin. Prozesioan da agertzen oroz gainetik anatomia hori. “Gremios” edo lan-ko- fradiak dira agertzen Toledo, Valentzia edo Bartzelonako prozesioetan, Flan- des-eko ereduak berriz hartuz. Gorputz sozialaren metafora baliagarri da sin- boloen indarraren ulertzeko, oroz gai- netik Aro Modernoko Espainiako hiri handien kasuan. Indarren arteko ha- rremanak ere agertzen dira egun har- tan; gatazka politikoak ezin dira gorde. Sevillako kasua ezaguna da, hiri hone- tan XVI eta XVII. mendeetan, Corpusak zinezko funtzio politikoak ukan zituen, kari horretarat agertzen baitzen nork zituen benetako indarrak. Dantzari buruz sortzen da 1690ean eztabaida bat apezpiku eta herriko agintarien artean, batzuek dantzak kendu nahi, besteek ez... Eztabaida Erromaraino joan zen eta aita sainduak dantzen be- giratzea prozesioan erabaki zuen. Beste batzuetan afera larriagoa bihur- tzen ahal da: 1640an, herriak Besta- -Berri eguna hautatzen du Bartzelonan agintarien aurka asaldatzeko, delako

“Corpus de sangre” famatua gertara- ziz. Besta-Berri-ren espazioa ere inda- rren espazioa da: Toulouse hirian, pro- zesioaren ibilaldia indarren geografia da, eta borroka gaitzak sortu dira Aro Moderno eta Erdi Aroan artzapezpiku, kofradia, capitoul (herriko kontseila- riak) eta hautetsien artean, jakiteko nondik pasatuko zen prozesioa:

Garbiturik, berduraz estalirik, apain- durik, garaipen-arkuz osaturik, bozka- riozko suz argiturik, hiriaren espazioak bere bestazko soinekoa jantzi du eta egun guzietako itxura gorde. (...) Gorde- tze-joko hori atzemaiten da Italian, Fran- tzian eta Flandes-en Aro Modernoa baino lehen. Laster, hiri espainolek Italia eta Holandako hirien eskarnia eginen dute. (...) Besta-Berriaren antolatzaileek hiria edo probintziaren indarra agerian emaiten dituzten ibilaldi batzuk hautatzen dituzte. Besta-Berriaren espazioa inda- rren espazioa da, eta ibilaldia ttipitzen delarik ere, indar politiko eta erlijioz- koaren tokiak ez dira sekula ahazten (Cassan 1980: 183).

Oro har, izan dadin Espainia, Italia, edo edozein tokitan, besta horrek hala erlijio- nola politika-funtzioak ditu. Beste edozein bestetan baino gehiago be- harbada, indar politikoak beren osota- sunean agertzen dira, eta karrikaz jabetzen. Baina ber denboran, herriak baliatzen ahal du aukera hori asalda- tzeko, eta urtean zehar ixilik lo dauden tentsioen arrapizteko. Halere, orokorki ateratzen den inpresioa da, Erdi Aroan eta are gehiago Aro Modernoan, agin- tarien joera besta horri buruz, Makia- velok eraiki estrategia baten heinekoa dela:

Besta hori da ohiz kanpoko okasio bat –hoberena funtsean, ikusiz urte oroz berriz heldu dela– indarrarentzat, bere gorputz zibil eta elizkoietan, bere indar eta hierarkia guztiaren agertzeko parada bat populuaren laudorio eta batzuetan

kitzikaren aitzinean. (...) Deus ez da ahantzia, azpikoen liluratzeko, etsaien probokatzeko, edo gainekoaren xarmatzeko. Baina ez zaie aski agintariei, horrela hainbertze osperekin agertzea, (...). Beren eginbehar politikoa da baita ere populuari ahal bezain besta eder baten emaitza. *Panem et circenses, pan y toros*, dira Corpus-ari aise lotzen ahal zaizkion lema batzuk (Sentaurens 1993: 215-216).

2. Besta-Berri Ipar Euskal Herrian: dantza, lore eta armak

2.a. Non?

Gaur egun, Besta-Berria era berezi batez (dantza, musika, beztituekin...) ospatzen da Lapurdi eta Nafarroa Behereko dozena bat herritan, Heleta, Iholdi eta Lekornekoak direlarik famatuenetarik zenbait. Gaur egun, Besta-Berriren eskualdea Ezpeletatik Bithiñarat doa mendebaldetik ekialderat, eta Donamartiritik Ortaizeraino, iparraldetik hegoalderat. Halere, dudarik gabe erraiten ahal dugu 1920 urtea arte, Lapurdi eta Nafarroa Behereko herri gehienetan agertzen zela Besta-Berrian herriko gazteek osaturikako milizia edo “guarda nazional” bat, akto-reek berek baliatzen duten erranaldia- ren baliatzeko. Iduriz, gaur egun, dantzak lehen baino garrantzia gehiago hartu du ohitura zaindu duten herrietan, baina sail horretan biziki zaila da ohar orokor batzuen egitea, kasu ba-koitza berezia delakotz.

2.b. Zer?

Joan den mendetik honat, ohitura begiratu den lekuetan, kontsideratzen

ahal –eta berez ohargarria da– da erri- tualaren itxura guti aldatu dela. Herri horietan, gazteriak milizia bat antola- tzen du, arma, agintari eta guztiekin, Irun, Hondarrabia eta hegoaldeko beste hainbat lekutako “alarde”en pareko zerbait eginez. Kari horretarat, aginta- riak hautatuak dira (lehen bozen bidez egiten zen hautu hori), graduak parte- katuak, dantzak irakatsiak; eta oraino ezkontzekoak diren mutikoeak dituzte talde horren lerroak betetzen. Hona adibide bezala, Itsasu eta Luhusoko tropen egitura 1994an:

Makilari bat

Bi oilar (zurez edo burdinazko oilar bat makil baten puntan dakarten bi dantzari)

Lau zapur⁴ (Napoleonon garaiko arropetan, aizkora bat bizkarrean)

Bi banderari (frantses banderekin)

Kapitain bat

Sarjent bat

Lieutenant bat

Bi kaporal⁵

Bi lantzier⁶

Soldadu (ahal bezainbat, urteen ara- bera)

Bi jandarma

Suisa bat

Guarda bi igandez ateratzen da (Besta-Berri eta Otabaz). Luhuson, errituala osoki berreskuratua izan da 1970 urtean. Itsasun aldiz, ez da igan- de batez baizik ateratzen guarda, beste igandean parrokiako besta dela- kotz iragaiten. Luhuson, bi igandez ze- remonial bertsua iragaiten da. Goizean, guarda karriketan ibiltzen da, eta badoa agintarien bila mezarat joateko (jaun erretorea eta herriko gizonak). Elizarat heldu eta, guardia eliz atarian gelditzen da, apezaren seinalearen zain. Hau sakristiatik ateratzen delarik,

4. Lekorne eta Heletan “zanpurak” deitzen dituzte. Itsasun “zapur” hitza entzun dugu.

5. Luhuson.

6. Luhuson.

Suisak hiru ukaldi jotzen ditu bere *hallebarde*-arekin, eta guarda sartzen da dantzan aldareraino. Itsasun eta Luhuson, oilarrak, makilaria eta zapurrak dira dantzan ari. Besteak urratsean sartzen dira. Meza denboran, guardak ohoreak eskaintzen ditu sakramentu sailduari, agintarien errana obedituz. Mezaren bururatzean prozesioa egiten da kanpoan, itzuli bat eginez, elizarat berriz jin arte. Zapur, oilar eta makilaria dantzan ari dira prozesioan, sakramentu sailduaren inguruan. Hau lau gizonek altxatu pabillunaren azpian eramaiten du apezak. Mezatik landa, guardak eta nahi dutenek maniobra eta dantza zenbait emaiten dituzte plazan. Gero, jaun erretora berriz bere etxerat segitzen du guardak. Bazkaldu eta, gauza bera iragaiten da bezperetan. Magnificat kantikoaren denboran, banderak itzultzen dira, kantuen arte-tik. Otabaz, prozesioa arratsaldean ateratzen da goizean egiteko orde.

Guardaren lana ez da erlijiozko ekitaldietan mugatzen: bi igandez, goiz eta arrats ibiltzen dira milizianoak herriko karriketan, auzapez eta kontseilarien etxe aitzinetan trago baten truk bi jauzi eginez. Eguerdiko bazkaria ez da ere nolnahi antolatua. Usaia zen lehenago auzapezak guardako kapitaina eta jaun erretora gomita ditzan, eta herriko kontseilariak gainerateko ofizierak gomita ditzaten⁷. Hierarkia sinbolikoak egiazko hierarkiekin lotzen ziren kasu horretan. Gaur egun, bazkariak denak elkarrekin egiten dira.

2.c. Guarda nazionala historian zehar: militar aldearen ahultzea

“Guarda nazional” izen hori ez da Besta-Berriko irudimenetik horrela bat-batean aterea. Erakunde historiko bat du izendatzen, Frantzian izan zena 1789tik 1871ra arte. Historiatik behar da pasatu ulertzeko nondik heldu diren guarda hori eta berekin daramatzan baloreak:

“Guarda nazionala” iraultzaren asmakizun bat da. Parisen sortu zuten 1789an, La Fayette zutela buru. Probintzietako hiriek hiri nagusia bezala egin eta, burges-guardak bateratuak izan ziren *garde nationale* bilakatzeko gisan. Hau 1791ko abuztuko lege batek antolatu zuen, 18 urtetik goitiko *citoyens* guztiak hartan parte hartzera bortzaraziz. Robespierre erori eta, Bonapartek kendu zuen, baina 1805 eta 1812an, eta jorkaera militar bat ukan zuen 1813an. Bourbons-ek begiratu zuen, baina ez zuen lan garrantzitsua egin Louis Philippen denboran baizik. 1831n eta 1832an berriz antolatu eta, ordena publikoaren armada bilakatu zen, “erregetza konstituzionala, *Charte* eta berekin dauzkan eskubideen babesteko (...)” eraikia zela eta. Orduan biltzen zituen bakarrik beren ekipamenduaren ordaintzeko gai zirenak, elementu sobera herrikoiak baztertuz. II. errepublikak demokratizatu eta, guardaren gizon-kopurua ia lau bider emendatu zen 1848ko Otsailko iraultzatik landa. Bigarren Inperioren garaian (1852-1870), gobernua lotan atxiki zuen guarda, ofizierak berak izendatuz. 1870eko gerlarentzat berriz piztu zuten guarda, eta soldadu anitz igorri Frantzia Ekialderat. Halere, gerlatik landa, ikusiz zein politizazio-usaia hartu zuen Pariseko guardak (oroz gaineratik 1848ko iraultzan), Thiersek

7. Prinzipio bera atzemaiten dugu Zuberoako maskaradekin. Han, eta gaur ere, maskaradako partaide guztiak etxeetan gomitatuak dira. Maskaradako jauna auzapezaren gomita da, eta laboraria axuant batena. Hemen ere badugu hierarkia sinboliko eta egiazkoen elkar-lotze bat (maskaradei buruz xehetasun gehiagorentzat, ikus Guilcher 1984, eta ihauteri erritual horien gaurko zentzuarentzat, ikus Fourquet 1990).

erakunde horren desegitea erabaki zuen (Mourre 1978).

Historiak dioenez beraz, guarda horrek gutxi gora-behera ehun bat urte iraun zuen. Haatik bere garrantzi soziologikoak urtemuga horiek aise pasatu ditu. Ohargarri da alde batetik guarda horren garrantzi sozialak gaur arte iraun duela, eta iraunen ere bulta batez segurik, baina bertzalderat, pentsatzen ahal da guarda horrek jadanik Frantziako probintzietan ziren milizien segida hartu zuela. Milizia horiek parada-kargu bat bazuten, defentsa-kargua bezainbat garrantzi zeukana⁸. Gainerat, parada-lan horrek alderdi militarrik baino garrantzi gehiago ukanen du, eta hori XVIII. mendetik goiti. 1846an adibidez, suprefeturak ohartarazten dio Itsasuko auzapezari 50 armetarik 36 zirela onak⁹. 1852an aldiz, Itsasuko herriko kontseilariak nahi zuten herriko 50 armetarik 40 zituen suprefeturak ordaindu, ez baitzuten gehiago haien beharrik¹⁰. Guardaren armen estatuan atxikitzea izugarri gosta zaio herriari, eta noiznahi pleñi da administrazioari.

2.d. Guardaren errannahi sozialaren iraupena

Gaur arte, hein desberdinetan, guardak gazteriaren instituzionalizatze-lana bete du. Herriko erakunde bat zen guarda, ezkondu gabekoena. Gazteriaren ordezkatzeko funtzio sinbolikoa begiratu du guardak, bere izate milita-

rra aspalditik ahanzi baldin bada ere. Ohargarri da hemen Provence eskualdeko *capitanage* deitu gazte-erakundearekin diren hurbiltasunak. Frantzia hegoko eskualde horretan, Erregimen Zaharrean, herriko kontseiluan parte hartzen zuten familietako semeek osatzen zuten ohorezko guarda bat zen hau. Hautuzko gazteria horren artean hautatua zen hiriko kapitain bat, burgesian hartu behar zena; eta *enseigne* edo entseñari bat, ofiziale edo laborarien artean hartu behar zena. Erakunde sinboliko bilakatu eta Erregimen Zahararren burutzean, kapitaingoak bere ohorezko funtzioa begiratu du. Beste lanen artean, Provenceko kapitain eta entseñak dantzaren irekitze edo hasteko eskubide eta ohorea bazuten, maiordomoek mutil-dantzaren markatzen hasteko dretxoak Baztan aldean zuten bezala¹¹. Europa guztian, funtsean, gazteriaren buru izaitea sinbolikoki jokatzeko zen besta-denboretan, oroz gainetik uda hurbiltzearekin.

Ipar Euskal Herrian, guardaren burua, kapitain edo beste, beti etxe hoberenatarik ateratzen ziren. Gaur egun besta-batzordeko buruak dira frankotan aitzindari, edo aitzindariari hurbil¹². Hogeigarren mendea arte, guardan manatuko duten ofizierren izendatzeak eztabaida beroak sortu ditu herrietan, jende eta etxeen arteko gatazkak arrapiztuz, batzuetan administrazioari noigoiten zirenak gainerat¹³. Donapaleko kazetak ere ohartarazten due-

8. Ohargarria da adibidez 1789 antzinako Hazparneko miliziaren egiturak gaurko Besta-Berriko guardaren elementu anitz berriz hartzen dituela. Ikus (Etxehandi 1989).

9. Itsasu herriko artxiboak, suprefeturen eskutitza auzapezari, 04.11.1849.

10. Itsasu herriko artxiboak, kontseiluaren erabakia, 08.04.1852.

11. Ohargarria da gainerat Baztango herrietan, gazteek hautetsi maiordomoak jende aitzinean aurkeztuak zirela ofizialki, erran nahi baita dantzaren bidez, Besta-Berri edo Otabaz. (Larralde P. eta X. 1991: 16).

12. Heletan adibidez, gaur egun, besta-batzordeko lehendakaria ez da kapitainez beztitzen, baina euskal ikurrinarekin doa tropa guztiaren aitzinean.

13. Gatazkak batzuetan aski urrun bazihozten, ikusiz adibidez 1863an suprefetak behar izan zuela Itsasuko auzapezari idatzi, galdeginez prozesioa guardarik gabe iragan zedin, antzineko urtean izan

nez «ohorezko guardaren manatzea biziki gauza preziatua da, eta zein-gehiagokak sortzen ditu herriko *primuen artean*»¹⁴ Armendaritzen 1920ko urteetan, Besta-Berri herriko bozen prestatzeko molde egokia ere izanen da, gazteriaren komenangoaren bidez, herriko komenangoa miresten zuelakotz lehen aitzindariak... (Karrika 1990: 161).

Besta-Berri, jokoan sartzen dituen aktore eta estrategien bidez, herrian izaiten diren indarren arteko harremanen ispilua da. Gainerat besta horretan, egiazko hierarkiei (herriko kontseilu, erretore) gehitzen dira (eta batzuetan ordezkatzan dituzte) hierarkia sinboliko batzuk, edo Antzinako Aroko ordenen oroitzapen direnak. Itsasun adibidez, Sakramendu Saindua begiratzan duen pabilluna beti etxe beretako gizonak dute ekartzen¹⁵. Herritarrek diotenez, “pribilegio” hori emana zaie herriko etxe zaharrenak direlakotz. Aspalditik ahanztzia izan den etxeen arteko hierarkia bat sinboloen bitartez berriz jatzartzen da urtean behin¹⁶. Beste herri anitzetan, pabillunketariak tokiko “notableak” dira, etxe onetako gizonak. Kurutzea aldiz Elizako lehen auzoak du eramaiten, prozesioaren aitzinean kokatuz. Sinbolo espazialak, herriaren egiturari zuzenki lotuak lotzen dira erlijiozko eta politikazko sinboloen¹⁷.

Herriko indarren arteko harremanen ispilu baldin bada besta hori, ez da kanpoko eraginei hetsia. XIX. mendearen adibidea hartuz, ikusiko dugu orain ideologia handien arteko eztabaidak ere sentitzen direla besta horren bilakaeran.

3. Erlijio herrikoa eta ideologia: Besta-Berri parabola politiko bezala

XIX. mendearen bururatzea Estatua eta Elizaren arteko gatazken garaia da Europako hainbat tokitan. Frantzia estatu errepublikarrak Elizaren aurka legeak bozkatuko ditu oroz gainerat Grévy lehendakari bilakatuko delarik 1879an, eta geroago Gambetta eta Ferry ministroekin. Kongregazioen aurkako lehen dekretuak 1880an hartuak izanen dira, eskolak laiko bihurtuko 1886an, eta 1883ko lege batek uniformen presentzia debekatuko du Elizako bestetan. Prozesioei dagokionez, herriek dute erabakia hartu behar. Rogazioak ez badira sobera hunkituak, haatik Besta-Berri frankotan debekatu da, sobera “Erdi Arokoa” delakotz, sinboloz sobera bete. Herri anitzetan, agintariak prozesioak ez dituzte hunkitzen, baina ez dituztela gehiago segituko adierazten dute. Beste toki batzuetan, ekitaldi horiek ofizialki debekatuak dira: Britainian, zaldien benedi-

ziren gatazkek ez zitezen berriz gerta. Eskutitz horretan untsa sentitzen da administrazioaren lege eta herriaren usaien arteko hutsunea : «(...) jaun mera, ulertaraziko duzu zure administratuei prozesioak ez duela deus galdeko ohorezko eskortarik gabe iragaiten bada (...) prozesioaren laguntzeko munta litekeen edozein talde armaturen aurka behar duzu tinko agertu (...)» (Itsasu herriko artxiboa, 01/06/1863).

14. *Journal de Saint-Palais*, 10/06/1894.

15. Gaur egun, etxean bizi diren gizonak dira “pabillunketari”, izan daitezen jabe ala etxetiar. Horiak dira Zubeleta, Fagaldea, Larrondoia eta Zabaloa. Etxe horiek *infaçon* bezala kontsideratuak ziren Erdi Aroan, horietatik atera batzuk Nafarroako gortearan alde aritu zirelakotz borrokan.

16. Duela hogeita hamar bat urte, Itsasun pabillunketariak Besta-Berrikan kanpo ere betetzen zuten beren lana, hilabetean behin hilerrietan barna egiten zen prozesioan.

17. Bestalde, sinbologia espazialak ere agertzen dira egun hartan, oroz gainerat dantzaren bitartez: Itsasun, meztatik landa emaiten zen dantza-kordan, sokaren lehenak behar zuen Basaburu auzoko lehen etxetik atera, eta azkena Gibelarte auzoko azkenetik. Kasu honetan, sokak herri osoa sinbolizatzen du lehen etxetik azkenetara, auzo guztien batasuna erakutsiz.

katzea Saint Roch egunean kentzen da lekuka, Montpellierrren prozesio guztiak kenduak dira, bai eta Gers departamenduan ere, eta Flandesen.

Baionan, Saint Leon hiriko patroia-
ren prozesioa 1885ean auzapezak debekatzen du. Urte berean, apezpi-
kua eta auzapezaren arteko gatazka batetik landa, Besta-Berriko prozesioa debekatua da, eta gauza bera gerta-
tzen da 1887ko Otabarekin. Garai ho-
rretan, erlijioa eta politika errotik nahasiak dira, dena baliatzen da ideo-
logien zerbitzuan, eta bistan da lehen-
ik baliatuak diren gauzak sinboloak direla. Besta-Berri horietarik bat da, eta interesgarria da ikustea nola baliatu duten besta hori orduko bi aldizka-
riek, baño errepublikarra, “gorria”, *L’Avenir des Pyrénées et des Landes*, eta bestea “xuria”, elizatiarra eta euskarazko astekari bakarra, *Euskalduna*.

3.a. *L’Avenir*: Besta-Berri herri baten atzeratasunaren seinale

Luhuson 1885ean, gatazka bat sor-
tzen da berrikitan etorri eskola-emaile laiko eta herriko erretorearen artean prozesioari buruz. Erretoreak galdegiten dio irakasleari haurren ez segitzea prozesioan «ikusiz usaian ez dituzula segitzen elizan (...) eta gainerat Elizako legeek eta herriko usaiek ez dute onartzen emazteak sakramendu sainduaren edo apezaren aitzinean ere izan daitezten, ez badute beste funtziorik betetzeko (...)»¹⁸. Otabaz, krisi ttipi bat gertatu zen herri horretan: ikusiz eskola-emailea hor bere tokian zegoela, erretoreak erabaki zuen prozesioa ez zela aterako. Eguerditan, auzapezak erretoreari jakinarazi zion prozesioa debekatua izanen zela irakaslea ez ba-

zen onartua. Ez zen prozesiorik izan, eta *L’Avenir* kazetako editorialistak ukan zuen erretorearen intolerantziaren eta oskuratismoaren salatzekeo parada eder bat:

Ze aldetan da sinesmenen eta le-
geen errespetua? (...) Etengabe sala-
tuko ditugu Euskal Herrian apaizek egi-
ten dituzten jukutriak: erretoreak sobera ateratzen dira beren elizetarik. Edozein kasutan erreakzioaren alde agertzen dira; horren ondorioak jasango dituzte¹⁹.

Doinu bera sentitzen da Milafranga-
ko Besta-Berriak komentatzen dituen artikulu-
an 1902 urtean. Aldi honetan, eztabaida banderari doakio, honek Je-
susen bihotz sakratua duelakotz ager-
tzen hiru kolore nazionalen erdian, parte xurian hain xuxen. Edozein irudi-
ren emaita frantses banderan 1901eko lege batek debekatu zuen, eta artikulu guztia ildo horretarik abiatuko da, zere-
monia osoa maskarada bati konpara-
tuz, eta hor ziren hogeit hamar guardak ihau-
terietako “kaxkarot” edo dantzarien parean ezarritik. Trufaren gibelean gaiz-
ki gordetzen da herriko agintarien kri-
tika zorrotz bat, Elizatik hurbilegi zirela salatuz:

Nanterretik Fouilly-les-Oies artean ez da behin ere hain gauza irrigarria izan: herriko kontseilua, Martiquet axuanta zutela buru, pabilluna segitzen zuten Panurgen ardi-
en gisarat. Kaxka-
roten pelotoiak ibilaldi bat egin du karri-
ketan, bandera bizkar gainean ekarriz fuxina bat balitz bezala. (...) Duela 30 bat urte, ikusi ditut Bera, Lesaka eta Elizondon jende armatu anitz prozesioe-
tan. Karlista armaden antolatzekeo molde bat zen hori: graduak kari horre-
tarat banatuak ziren, eta elkarri lotzen zen jendea. Egun batez, lagun horiek guziek elkar atzemaiten zuten mendian

18. *L’Avenir des Pyrénées et des Landes*, 27/06/1885.

19. *ibid.*

Santa Cruz basaren inguruan, horrek zituelarik gerla hastapenean hamar bat karabinero hil, denak aita-familiakoak (...). Euskal klerikoak Pirinioetako bestaldekoak bezala egiten badu, Nafarroako erreinua berriro eraikiko dute, Milafranga izanen duelarik hiri nagusi bezala! (...) ²⁰.

Errepublikarrek jasaiten ez zutena zen prozesio horiei "ofizialtasun" zerbait emaiten zieten sinboloen presentzia: bandera, soldadu, agintari zibil, eta abar. Horren aurka, editorialistek folklorizatu nahi zuten besta hori, erakutsiz «prozesio horiek zinezko maskaradak bilakatu zirela»²¹. Banderaren adibideak untsa erakusten du seinale eta irudien sinbologiaren garrantzia politikan. Bandera «estatu baten lehen seinalea da, berehala gogorat heldu zaiguna» (Agulhon 1988). XIX. mendearen bukaeran, bandera orokorki onartua baldin bazen Frantzian, erlijiozko sinboloak banderaren gainean agertzeak eztabaidak arrapiztu zituen. Kasu hartatik: polemika horiei behar zaie beren zinezko neurria begiratu:

Erlijioaren alde eta aurkako jokaera azkar eta bortitzak guti izan dira Frantzia mailan (...). Apaindurak errepublikar bilakaraztea ez da aitzindarien lan sistematiko bat izan, baina bai toki batzuetako errepublikar erradikal batzuen estrategia (...) (Agulhon 1988: 307).

Ipar Euskal Herriko kasua ez da beraz sobera hedatu behar.

3.b. *Euskalduna*: Besta-Berri Elizaren indarraren froga

Euskalduna astekariaren historia ezaguna da. Aipa dezagun doi-doi

20. *Le Réveil*, 12/06/1902 (*L'Avenir* aldizkaria *Le Réveil* deituko da 1901 eta 1902 urteetan).

21. *ibid.*

22. Adibidez 1896an, apaiz batzuei jorjala kendua zaielarik Nortean Sakramendu Saindua prozesio batean atera zutelakotz. *Euskalduna*, 03/07/1896.

23. *Euskalduna*, 03/07/1896.

hemen 1887an sortu zuela Louis Etcheverry elizatiar diputatu kontserbadoreak elizaren kontra zen *Le réveil basque* aldizkariaren tratatzeko. Hemen, Besta-Berri baliatua izanen da erakusteko zer eragin duen Elizak herrian, eta frogatzeko indarra bere alde dagoela, eta oroz gainetik herri-kultura Elizaren aldeko kultura dela, hizkuntzarentzat "euskaldun-fededun" atsoitzak garai berean zioen bezala.

Euskaldunak Frantzian nonahi debekatuak diren prozesioak kontatzen ditu, agintari zibilen jokamoldea salatuz²². Orokorkiago, astekariak herriei erlijio mailan erabakien hartzeko konpetentziak emaiten dizkien legea salatzen du, Roubaix hiriaren kasua aipatuz:

Norteko departamenduan lau edo bortz erretoreri eta heien artzapezpikuari gobernamentuak beren paga ebatsi deie. Zertako? Zeren Besta-Berri egunean karriketarat jalgi dira Sakramendu Sainduarekin, hiriko auzapezaren baimena gabe. Sobera zaiote sakramendu saindua elizetarik kanpo agertzea. Diren bezalako pagano-tyrano higuingarriak, auzapez ministro eta bertzeak. Apezekin batean "biba erlijioa" oihu egin duten gizon gazte kartsu batzu ere preso sartu dituzte, buruzagitasunari jazartzen zirelako estakuruan iduri eta Jainkoaren nausitasuna ez den minixtro eta auzapez guztienaz goragokoa!²³

Frangotan, artikulua prozesioekin hasten da betiko etsaien kontrako teoria orokorrigo batzuekin segitzeko eta bururatzeko: sozialistak, juduak eta "framazonak". Euskal Herriari dagokionez, *Euskalduna* astekariak bere arrazoinamendua hizkuntza eta erlijioaren uztartze "objektibo" baten inguruan

eraikitzen du. Euskal nortasun batean sinesten dute, eta nortasun hori lantzen eta hedatzen dute, baina inondik ere ez Frantziatik ateratzeko asmoarekin. Euskal Herria aberri ttipia da, aberri handia den Frantziaren baitan. 1890ko urteetan abertzaletasuna agertzen da Hego Euskal Herrian: Iparraldeko Eliza argiki urruntzen da tesi berri horietarik, Frantziako kontserbadoreei beren sostenguaren ekartzeko. Helburu estrategikoa da Elizarentzat ahal bezainbat indar ukaitea departamenduaren buruan eta Parisen, ez Euskal Herriari erakunde berezi batzuen emaita. Euskara estrategia horretan baliatua da Elizaren kontrako “lege gaiztoen” gaitzesteko eta denek uler dezaten nor den herriaren alde.

Herri-kulturaren bozeramaile bezala agertzen da orduko Eliza, eta Besta-Berriren indarra barnealdean baliatuko du erakunde horrek. Prozesio guti debekatuak dira Euskal Herrian, eta Besta-Berrikoak oroz gainetik Elizaren indarraren seinale bezala erakutsiak dira. Irisarriko xantreak auzapezaren aurrean eman bertsoak 1893an publikatzen dira²⁴, edo Ortzaizeko erretoareak berak eginak 1912an²⁵. Denek guarda nazionala zinezko armada batekin konparatzen dute, Elizako armada bati. Herriaren batasuna loriatzen da, Baigorri bezala 1903an:

(...) Eta eliza erdian garda nazionala bi lerrotan, baina nolakoa! Zer gazteria ederra! Non ikusten da han bezalako

soldadu andana gaitza! Kapitaina da herriko jaun notari eme eta biphila, eta haren lagun, aitzindari bezala, sei muthiko gazte lerdan eta chutak, seguru kapitainarekin nun nahi agertzeko eta ibilitzeko on direnak. Gero sei zapur, zortzi lantzier, laur atabalari eta bertze hainbertze turrutari, ahandzi gabe tambour-major zoragarria. Eta zer soldadu lerroa! Orotarat naski hiruretan hoge eta hamar bat bilduak Frantziako banderaren ingururat; ezen Frantziako banderak guztien buruak baino gorago haizeak dabila airean (...).²⁶

Diskurso horretan, ohiturak “betidanik” hor izan diren gauza batzuk bezala kontsideratuak dira. Kontserbadurismoaren izenean, tokiko kultura baloratzen da, eta usaiak mantentzea gomendatzen zaie herrietako gazteei²⁷. Besta-Berrik dauzkan militar-itxurak militante bilakatzen dira hemen. Batzuek “erlijio herrikoia” deitzen duten sinbolo-sistema horrek zentzu politiko tinko bat bazeukan orduan, hain ziren ideologiak jorratu zatiketak barna eta manikeikoak. Kasu gero, beti gogoan atxiki besta horrek duen zentzua aldatzen dela hizlariaren arabera: Baionako astekari politikoeak armak eta banderak dituzte oroz gainetik ikusiko, dantzez adibidez hitz bat erran gabe. Apaiz batzuek otoitz-giroa dute azpimarratuko, herritar batzuek aldiz dantza-jauzi edo dantza-korda zutelarik baita ere gogoan... Zernahi zentzu, zernahi ikusmolde sinbolo berdin baten inguruan. Bakoitzak ikus dezala nahi duena besta horretan.

24. *Euskalduna*, 06/1893

25. *Euskalduna*, 06/1912 (ikus *Herria*, 10/06/1993.)

26. *Euskalduna*, 26/06/1903.

27. Polemika ttipi bat sortu zen 1897an *Euskalduna* eta Donazaharreko gazteriaren artean. Norbaiek idatzi zuen astekarian «gazteria alderat edatea eta erotasunari emana zela» eta ez zela gehiago guarda nazionala plantakorik agertzen. Ondoko aste berean, Donazaharreko gazte batek erantzun zion gazteria Besta-Berri eta Otabaz atera zela beztiturik eta denak untsa iragan zirela, galdeginez idazleari otoi ez zezan heda Euskal Herriari toki bakar batzuetan ikusi zuena (*Euskalduna*, 02/02/1897 eta 09/07/1897).

4. Bukaera

Bururatzeko, ohartaraz dezagun doi-doia 1989tik goiti pentsaketak ari direla egiten Iparraldeko hainbat herritan besta horren bilakaerari buruz. Belokeko aita Marzel Etxehandik egin ikerketa historiko-liturgiko garrantzitsu batetik landa (Etxehandi 1989), eztabaida ugari sortu da erritualaren zentzuaren inguruan. Herri batzuetan nahi izan dituzte armak eta agindu militarrek kendu, dantza eta musika gehiago sartuz, berdura gehiago hedatuz. Batzuetan “erreforma” untsa joan da, bertzetan ez, eta beste herri batzuetan

lehen bezala segitzen du usaia horrek, batere aldaketarik gabe. Oro har, berritze guti izan da, eta beste ekintza sozial batzuk bezala, Besta-Berri mantendu den lekuan den bezala egon da. Aspalditik ahantzia izan zen tokietan, arrunt gauza berri bat egin ahal izan dute, Ezpeletan bezala, “ohitura” berri bat sortuz. Pentsaketa ugari ari dira egiten Iparraldeko herritarrek beren usaia zaharrei buruz, gaurko gizartearen arazoan ispilu paregabekoak direlakotz berriz ere, oroz gainetik “nortasun kolektiboaren” eta “herri-kulturaren” inguruan hainbertze gogoeta eta eztabaida egiten delarik...

Bibliografia

- Agulhon, M.: *Politiques, images et symboles dans la France post-révolutionnaire*.
———: *Histoire vagabonde, t.1: ethnologie et politique dans la France contemporaine*.
Balmont, N. (1990): “Folklore”, *Encyclopaediae Universalis*.
Bessaingnet, P. (1982): *La jeunesse, la fête et l'école*, Université de Nice, Nice.
Bidador, J. (1993): “Materiales para una bibliografía sobre la danza vasca”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 62, 345-379.
Bradbury, R.E.; Geertz, C.; Spiro, M.E.; Turner, V.W.; Winter, E.H. (1972): *Essais d'anthropologie religieuse*, Gallimard, Paris.
Caro Baroja, J. (1984), *El estio festivo*, Madril.
Cassan, M. (1980): *La fête à Toulouse à l'époque moderne, de la fin du XVI^e siècle à la Révolution* [thèse histoire], Université Toulouse-le Mirail.
Constant-Martin, D. (1992): “Le choix d'identité”, *Revue française de science politique*, août.
Coulon, C.; Morin, F. (1977): *Occitan ethnicity and politics*, Institut d'études politiques, Bordeaux.
Coulon, C. (1988): “La félibrée du Périgord comme rite d'inversion identitaire”, *Revue française de science politique*, Février.
Durkheim, E. (1911): *Les formes élémentaires de la vie religieuse*, Paris.
Etxehandi, M. (1989): *La danse dans la fête religieuse en Pays-Basque*, Baiona.
Fourquet, F. (1990): “La mascarade d'Ordarp”, *Bulletin du Musée Basque*, 129, Baiona.
Guilcher, J.M. (1984): *La tradition de danse en Béarn et Pays-Basque français*, Maisonneuve et Larose, Paris.
Isambert, F.A. (1982): *Le sens du sacré, fête et religion populaire*, Minuit, Paris.
“Karrika” Mendisco B., (1990), *Armendaritze haur begiez*, Auspoa, Tolosa.
Larralde, P. eta X. (1991): *Baztango folklorea*, IZ, Donostia.
Le Reveil, 12/06/1902.
Mourre, M. (1978): *Dictionnaire encyclopédique d'Histoire*, Bordas, Paris.
Sentaurens, J. (1993): *La mise en scène du pouvoir à Séville. La Fête-Dieu, champ clos des rivalités politiques, XVI^e et XVII^e siècle*, CNRS, Bordele.
Turner, V.W. (1971): “Syntaxe du symbolisme d'une religion africaine”, in Huxley J. (zuz.), *Le comportement rituel chez l'homme et l'animal*, Gallimard, Paris.